


Proiektu Eragile 13	HELDUAK LAGUNTZEKO ETA BELAUNALDIARTEKO HARTU-EMANAK SUSTATZEKO PROGRAMA (BEREIZI GABEKO GUNEA, EKINTZA BATERATUAK, E.A.)
<p>AZALPENA:</p> <p>Plan Estrategikoan (C.1.9 Estrategia) adierazten denez, <i>“Adineko pertsonen kolektiboa, gainontzeko biztanleen aldean, gero eta indartsuagoa den taldea da, baina pertsona hauek guztiak ez dira diru baliabide berdinekin eta behar berdinekin heltzen zahartzarora. Pertsona hauen laguntza bermatuko duten gizarte politika solidarioak ezartzeak gizarte-kohesio helburua lortzen lagunduko du, hein handian.”</i> Adineko pertsonen arazoa kolektiboa osatzen duten pertsona kopuruarekin batera handitzen ari da (eta nabarmen handitzen jarraituko duela aurreikusi da), batez besteko bizi-esperantza gero eta altuagoa baita (besteak beste, motrizitate arazoak eragiten dituelarik), familia unitatea gero eta txikiagoa izanik (bakarrik bizi diren gero eta pertsona gehiago daudelarik, senitartekoen laguntzarik gabe) eta pentsio lotsagarriak jasotzen dituzten eta baldintza penagarrietan bizi diren alargun-etxeke andre kolektibo handiarekin. Asko eta askotan, nagusi hauek zahartzaroak dakartzan arazo fisikio larriak dituzten pertsonen erabiltzeko prestaturik ez dauden etxebizitzetan bizi dira (igogailuak, komunak, e.a.).</p> <p>Bestalde, bizi-esperantzak gora egiten duen heinean, fisikoki eta mentalki ongi dauden pertsona taldea ere handituz doa, baldintza horietan gero eta denbora gehiago igarotzen dutelarik.</p> <p>Era berean, zaharren biztanleria handitzen den bezalaxe, zaharrekiko elkartasun eza eta diskriminazio fenomenoak areagotzen ari dira, zenbait gazteren eskutik, batik bat. Bi kolektibo hauen arteko aldea handitzen ari da eta desberdintasun horiek desagertu egin beharko lukete, gazteen “sasoia” adinekoen “eskarmentua” elkartzuz, gune banatuak ekidinez eta elkar topatzeko ekintzak sustatuz, bi belaunaldiek benetan bat egin dezaten.</p>	
	<p>HELBURUAK: C-1 helburuan eragiten du bereziki.: <i>“Donostian gizarte ireki eta solidarioa, bizitza eta giza eskubideen defentsarekin konprometitutako instituzio eta gizarte zibila dituen, elkarbizitza baketsua eta hiritar guztien integrazioa lortzea”</i> . Halaber, C.1.2 estrategian <i>“Belaunaldiarteo integrazioa erraztu, gazteriari aukerak eman eta adinekoekin solidarioak izango diren gizarte politiken bitartez, gizarteko bizitza aktiboan parte hartzea bultzatuz”</i> C.1.9 estrategian, <i>“Adineko pertsona guztiengana helduko den laguntza zerbitzu sarea bermatu”</i> ere eragiten du.</p>



Proiektu Eragile 13

HELDUAK LAGUNTZEKO ETA BELAUNALDIARTEKO HARTU-EMANAK SUSTATZEKO PROGRAMA (BEREIZI GABEKO GUNEA, EKINTZA BATERATUAK, E.A.)

DESKRIPZIOA:

Donostiako Udaleko Gizarte Ongizate Sailak, **Gipuzkoako Foru Aldundiak** eta **Matia Fundazioa** edo **INGEMA** bezalako beste zenbait erakundek esku hartzen duten egitasmo konplexua da.

Udaleko Gizarte Zerbitzuaren politikaren baitan, proiektu honetarako (ADINA egitasmoa) egindako proposamenak hauek dira:

- **Etxebizitza egokitzea**, arrisku gehien izan dezaketen bi espazioak, batik bat: sukaldea eta komuna.
- **Irisgarritasuna**, norberaren etxekoa batez ere. Ekintza fisikoetatik hasi (maldak, igogailuak, e.a.), eta egokitze teknologiak garatzeraino, lan esparru hauek garatzen hasi diren teknologia zentru eta enpresa gipuzkoarrekin elkarlanean.
- **Etxez etxeko zerbitzuak**.
- **Zerbitzu komunitarioak**. Adineko pertsonak euren inguruan parte hartzea bultzatu, pixkanaka gizartearekiko lotura murriztea eragotziz, mugitzeko zailtasunak, e.a. kontuan izanik. "Zaharrenen" ondoan egoten lan handia egiten duten boluntario taldeak badira, Nagusilan, esaterako.
- **Banatu gabeko Belaunaldi arteko Guneak indartu**. Gazte eta zaharren arteko haustura areagotzen duten espazioen banaketa ekidin (kultur etxeak, kiroldegia, e.a.).

Ekintza mota hauek eta hemendik aurrerako politikak **Udala** eta **Gipuzkoako Foru Aldundiak** elkarlanean garatutako politiken baitan burutu beharko lirateke, alor honetan behinik behin.

Aipagarriak dira, nola ez, beste erakundeek ekimenak ere: **Matia Fundazioak** bultzatu duen **ZABALTZEN** proiektua, zeinaren bidez Eskarmentuaren Eskola, Adinekoen Unibertsitatea, foro eta jarduera kulturalak promozionatu, osasunaren prebentzioa, eta adinekoen boluntario lana bultzatzea lortu nahi den.

Azkenik, **Matia Institutu Gerontologikoak (INGEMA)** bultzatutako ekintzak ere aipatu nahiko genituzke, berrikuntzak bultzatu beharko liratekeen alor honetan ikerketa zentro garrantzitsua baita.